

24. EUSKAL DENDA

AURKEZPENA

Arbasok, Euskal Herriko Artisautza Tradizionala sustatzeko Elkarteak, Euskal Dendaren 24. edizioa antolatuko du aurten. Elkartearen ekitaldi garrantzitsuenetako honek, berriro ere, Durangoko merkatu plaza izango du sektoreko makro-erakusleihoa.

Gero eta dibertsifikatuago, zabalago, heterogeneoago eta eklektikoagoa den artisautza sektore honetan, bisitariak 52 erakusmahaietako artisauen produkzioak izango dituzte gozagai abenduaren bostetik zortzira. Gainera, erakustaldietan parte hartu ahalko dute eskuzko lanbideak barru-barrutik ezagutzeko.

”Larruzko lilia” zango da hogeita laugarren edizio honetarako aukeratu duten leloa; izan ere, sentikortasun handiz daramate artisauek beren lanbideekiko grina; barruan daramate txertatuta lanarekiko sentimendua sektore ekonomiko horren ahalmenaren eta sostenguaren alde, baita gure kulturaren zati handi baten alde ere. Ofizio tradizionalak dira, eboluzionatuz doazenak eta, batzuetan, beren funtsaren zati bat atzean uzten dutenak, gizartearen eskaerarekin bat egiteko bide berriak bilatzeko.

XXI. mendeko artisauek apustua egin dute berrikuntzaren, diseinuaren, iraunkortasunaren eta antzinako tekniken alde, eta erabiltzen dituzten materialetan berrienak bilatzeari ekiten diote. Apustu pertsonal eta profesionalei esker, euretako asko benetako aitzindari bilakatu dira

Hartara, Euskal Denda topaleku saihestezina izango da artisautza bizirik dagoen sektorea dela egiaztatzeko; horren adibidea da, Durangon, lehen aldiz parte hartuko duten artisauen kopurua, 52 firmetatik 13, % 25a, alegia. Argi geratzen da sektorean belaunaldi berria datorrela eta erakundeen aldetiko laguntza behar duela irakite bizian dabilen gremio honek.

HELBURUAK

Beste behin ere, Euskal Denda sektorearen erakustoki onena izango da. Helburu nagusia artisautza tradizionala zein garaikidea bultzatzea eta merkaturatzea da, beti ere, Euskal Herrian egindakoaren zigiluaz.

Profesional hauek biziraungo badute, behar-beharrezkoa da, krisi garaian, artisauen lana bertatik bertara ikusaraztea; horixe baita Euskal Dendaren funtsa, hain zuzen ere. Izan ere, artisautza bizimodu bat da, gure herriaren balio kulturak bultzatzeko modu bat da, baita garapen ekonomikoa sustatu eta, gaur egun, galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko modu bat ere. Horrela bada, ekimen honen inguruan Euskal Herriko artisautzaren eta antzinako lanbideen gailenak batuko dira. Ezin dugu ahaztu artisautza bizimodu bat dela.

Gure artisautzak badu mugak gaindi ditzakeen kalitatea; beraz, horixe izango da helburua epe labur eta ertainera, noranzko horretan lan egin behar baitugu.

Esperientzia honi esker, bisitariak konprobatu ahalko du antzinako lanbideak oraindik bizirik daudela eta, era berean, artisau produktuak onak direla. Halaber, gure herriaren balio kulturak bultzatzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko modu bat ere bada, eta galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko. Hartara, ekimen honen inguruan, Euskal Herrietako artisautzaren eta antzinako lanbideen gailenak batuko dira.

EUSKAL DENDAREN HISTORIKOA

Euskal Dendaren arrakasta hazten joan da edizio bakoitzean. Azoka egunak kontuan hartuta, 20.000 bisitari inguru izaten dira. Aurreko edizioak goia jo zuen, 33.681 parte-hartzaile izan baitziren. Sarrerako atean hartutako zenbakiak dira azokako egunetan, eta objektibotasun osoz.

Antolatzaileen iritziz, Euskal Dendaren moduko azoka berezi batera horrenbeste jende hurreratzea balio erantsia da; izan ere, argi gelditzen da bertaratzen dena kontzienteki joaten dela gozatzeko nahiaz eta bertan parte hartzen duten artisauengandik ikasteko gogoz. Beraz, Euskal Dendara joaten den publikoa, bisitari leiala da; horregatik bada, asko zaintzen dira antolakuntzako detaile guztiak, topaketa bakoitzeko ilusioa benetakoa izan dadin.

Datozkigun egunei erreparatuta, aurtengo ediziorako aurreikuspena aurreko urteetakoaren antzekoa da, bai bisitariei, bai salmentei dagokienez. Horrek esan nahi du sektorearentzako bultzada bat dela, krisi garai hauetan.

PARTE HARTZAILEAK ETA ESPEZIALITATEAK

Aurreko urteetako ildoari jarraituz, Euskal Dendak Euskal Herriko lurralde guztietako ordezkariak izango ditu. Espazioak markatzen ditu ratioak, merkatu plazako 1.600 metro koadroak; horrek ezinezko egiten du Euskal Denda haztea bertan dauden ekoizle kopuruari dagokionez. Beraz, guztira, 52 artisau etorriko dira Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroatik. Bestalde, bertan izango diren firma askok lehen aldiz parte hartuko dute, 13 profesional batuko dira aurtengora; beraz, hori ere bada berrikuntza. Alegia, artisauetatik % 25ek estreinakoz parte hartuko dute azoka honetan, kutxu freskoa eta eraldatzailea emanez.

Lurraldekako parte hartzea dela eta, beste urte batez, Bizkaiak izango du ordezkari gehien, 24 artisau. Gipuzkoatik hamar etorriko dira, asko lehen aldiz; Arabatik zortzi eta Nafarroatik bederatzi. Ipar Euskal Herritik lapurtar artisau bat izango da gure artean.

Beste behin ere, Durangaldeak berebiziko lekua izango du Euskal Dendan, eskualdeko sei ordezkariak parte hartuko dute eta. Aurreko urteetan izandakoak dira denak, arrakasta handia izan baitute euren ekoizpenek; honakoak dira: Elorrioko **Anitha Mol**, paperezko bitxiak egiten ditu; **Rosa Etxabe**, zeramikari eta grabatzailea. **Restaurarte**, zaharberritze tailerra, 2010eko stand onena sariaren irabazlea; **Eneko Unzalu** bitxigile durangarra. **Felix Larrañaga** egur taillagin berriztarra ere etorriko da Durangora. Larrañagak 2018ko stanik onena izan zen publikoren ustez, izan ere, aurten jasoko du saria. Durangaldeko artisau zerrenda hau **Gorakat** gazte elorriarrak itxiko du.

Sektorekako sailkapena egiten badugu, ehungintzaren sektorea nabarmentzen da aurten, bertsio desberdinetan; izan ere, 10 artisauen artean, osagarriak, moda edo feltroa lantzen dituzte. Beraz, sektorearen segmentu bat da, nabarmen aurrera doana. Bitxi-denda ez da atzean geratu, eta sei artisau-tailer izango dira, beste horrenbeste ekoizlerenak. Era berean, aipagarria da Euskal Dendan txoko garrantzitsua egin duen nekazaritzako elikagaien sektorea. Aurten, sei espezialista izango batira, onenak bere esparruan, eta egun hauetan leku berezia hartuko duten produktuekin.

NOBEDADEAK

ARABA:

Arabak ordezkari berria bidaliko du:

Juguetes Lekutxu. Isabel eta Manoloren tailerrean fantasia eta sormena uztartzen dira. Bien eskutik iristen zaizkigu inoiz modaz pasatzen ez diren eta aldea markatzen duten jostailuak. Kalitatea, prezio onean, bihotzez egindako jostailuetan. Gasteiz.

BIZKAIA:

Nobedadeen artean, Bizkaiko bost artisau enpresek parte hartuko dute aurten Euskal Dendan:

Chiquininas. Ondarrun sortu zen enpresa berri hau, eta haren alma materak zaletasun bihurtu zuen bere lanbidea. 2018ko urtarrilean jarri zuen martxan bere proiektua, eta Indonesian, Qatarren, Kalifornian, New Yorken, Mexikon, Nevadan, Frantzia, Italian, Alemanian edo Polonian zehar "isuri" ditu bere objektuak. Ondarru.

Estudio 14. Bilboko botxoan sortu zuten proiektua Garbik, Karinak, Iratxek, Ortzederek eta Mariak. Garbiren eta Karinaren moda estudioekin hasi zen proiektua da, eta estilo berria, propioa eta oso pertsonala sortu dute. Ezinbestekoak. Bilbo.

Kekelis. Kekelis Joyería & Alquimian arima duten bitxiak diseinatu eta sortzen dira, atzean istorio bat dago zergati batekin. Ez dago bildumarik, pieza bakarrak baino ez, erabat pertsonalizatuak; joerei jarraitu beharrean, pertsona bakoitzaren estiloari ematen diote garrantzia. Kekelisen atzean Miren Begoña Del Castillo Garza biokimikaria dago, Biologa Molecular de Plantaseko ikertzailea. Bilbo.

Txikidolls. Egun berezi hauetan, Txiki Dolls enpresa arrakastatsuenetako bat izan daiteke. Xehetasunez betetako Fofucha eta panpina pertsonalizatuak egiten dituzte, horietako bakoitzak bezeroaren iradokizun guztiak onartzen baititu. Enpresaren alma materak dioen bezala, "Goza ezazu zure fantasiako munduaz, beharra dugu-eta denok, eta zortea zurea, sinesten baduzu". Barakaldo.

Wül. Feltroa Balmasedan kokatutako enpresa honen epizentro bihurtu da, eta Florencia Verón artisauak ahalegin guztiak egiten ditu berritzeko eta bere harri-kozkorra ekartzeko etengabe eboluzionatzen ari den sektore batera. Hainbat objektu ditu fetitxe gisa, poltsak, diru-zorroak, feltrozko xaboiak. Balmaseda.

GIPUZKOA:

Gipuzkoatik lehen aldiz etorriko dira:

Abian Products. Harro daude egiten dituzten produktuekin. Enpresa aitzindari honek produktu benetan artisau eta bakarrak ekoizten ditu, skate, surf eta oreka-taulen industriak egiten dituenetik desberdinak. Artisautza artistikoa da berea, originaltasuna eta formatu berriak ematen dituena, nortasuna galdu gabe. Zarautz.

Agara. Ibilbide ikusgarriarekin dator lehen aldiz Durangora Agara Agirre. Bere izena daraman zigiluaren egilea da eta istorio pertsonal bakoitzean forma emateko harribitxia bilatzen du. Hitzen artisaua da eta, ondoren, bitxia; sentiberatasun bikainarekin uztartzen ditu biak. Donostia.

Hazi ta Hezi. Haztea eta heztea, errespetutik eta koherentziatik abiatuta, hori sustatzen dute ingurune naturala zaintzearen eta errespetuzko hazkuntzaren aldeko apustua egiten duen familia-enpresa honetan. Horregatik, haren produktuak jasangarriak eta bateragarriak dira familiak bat egin duen filosofia horrekin. Ataun.

NAFARROA:

Nafarroatik lehengoz iritsiko dira:

Artilezko hodeiak. Aizarotzen sortu zen artilea eraldatzeko prozesuak (goruan irutea, kardatzea, tindatzea eta feltratzea) garatzen dituen artisau-tailer hau. Helburua da desagertzeko zorian dauden lanbideak berreskuratzea, artilea produktu gisa errealizatzea eta tradizio jasangarriak berreskuratzea, ondarearen kontserbazioan eta berrikuntzan parte hartuz. Adriana da kontseilaria. Aizarotz.

El txoko de la artesanía. Dena ez dago eskulangintzan asmatua, hala erakusten dute tailer honetan, eta ekoizpenak norabide garrantzitsua eta berritzailea hartu du aurretik. Bide horretan, imitaziozko bitxigintzako objektuei forma emateko erretxina sartu dute; hala ere, ez dute alde batera utzi haien lagun handiak, harrizko kartoizko erraldoi eta buruhandiak, koadernatzeak, altzariak berreskuratzea edo birziklatzea. Benetako artistak. Olite / Erriberri.

Katealde. Urbasa mendilerroaren magalean kokatutako enpresa da. Haren lur-eremu handietan mulard arrazako ahateak hazten dituzte, eta, ondoren, artisau-foie bihurtzen dute, mundu osoko mahaletara iristen dena. Kontrol zorrotzenen pean egina dago; izan ere, Katealdek Europako I+G proiektu batean parte hartzen du, elikagaien kalitate mikrobianoa ziurtatzeko, eta Nafarroako artisau-elikagaien parte da. Altsasu

Lorez lore. Lorez loren 2012an hasi ziren ezti lantzen. Gazteak eta nekazariak dira, beren abereak erabiltzen dituzte, eta kalitate handiko ezti, propoliak eta argizaria ekoizten dituzte. Erleen zaintzan arreta handia dutenez, kalitate-maila handiko produktuak lortzen dituzte. Berriozar.

2019ko JARDUERAK

Euskal Dendak beti hartzen ditu aintzakotzat bisitariak, artisautza tradizionalan murgiltzeko asmoarekin. Aurtengo 24. edizioan, bada, are gehiago. Asmoa baita ekoizleak bertatik bertara ezagutzeaz gain, antzinako lanbideak ezagutaraztea eta horietan sakontzea. Horregatik bada, bertan, zuzeneko erakustaldiak egingo dituzte. Beharbada, tailerrak eta erakustaldiak dira azoka hau Euskal Herrian egiten direnetatik berezia egiten dutenak. Beraz, aurtien ere, bisitaria ikuslea izateaz gain, pieza bat sortzeko prozesuan parte hartu ahalko du.

Halaber, Euskal Dendak dirauen bitartean zozketak eta hainbat zorpresak izango ditu bisitariak.

ARBASO: sustatzaileak

Arbaso da Euskal Dendaren eragilea; Gizarte Izaera duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Helburu nagusia honakoa du: euskal artisautza tradizionala eta garaikidea bultzatzea Euskal Herrian.

Arbaso izaera nazionala duen artisauen elkarte bakarra da Euskal Herrian. Ia ehun artisau-tailer biltzen ditu. Helburuak honakoak dira:

- Euskal artisautza sektorearen ordezkariak izatea.
- Artisautza tradizionala ezagutaraztea eta egunero erabiltzea sustatzea.
- Labela edo jatorrizko izendapena lortzea euskal artisautza tradizionalarentzat. Gipuzkoan eta Nafarroan badugu kalitate-etiketa bat.
- Euskal artisautza eta kultura sustatu nahi duten erakunde publikoen eta pribatuen inplikazioa lortzea.
- Eguneroko artisauen lana zaintzea, berori baita gure ondare kulturalaren etorkizuneko giltzarria. Laburbilduz, belaunaldi berriei ezagutzera ematea gure herriaren usadioak, kultur tradizioan aberatsak gara-eta

24. EUSKAL DENDA FITXA TEKNIKA

EDIZIOA: 24.a

DATA: abenduaren 5etik 8ra

ORDUTEGIA: Goiza, 11:00 - 14:30
Arratsaldea, 16:30 - 21:00.
Igandea 8, 20:00ak arte.

INAUGURAZIO OFIZIALA: Osteguna 5, 12:00etan

ERAKUSTOKIAK: 52

LURRALDEKA

Araba 8
Bizkaia 24
Durangaldea 6
Gipuzkoa 10
Lapurdi 1
Nafarroa 9

SEKTOREKA

Nekazaritzako elikagaiak 6	Ehuna 3
Zeramika 6	Kosmetika 3
Lore lehorrak 1	Fieltro 3
Zapatagintza 1	Moda 3
Zura 1	Zaharberritzea 1
Tailugintza 1	Bestelakoak 2
Larrua 4	Panpin txikiak 1
Bitxigintza 6	Jostailuak 3
Imitaziozko bitxigintza 4	Euskal Kirola 1
Olibondo tresnak 1	

LELOA: “Larruzko lilia”

LEKUA: Durangoko udal merkatu plaza.
1.600 m²

LEHIAKETAK: Publikoren ustez erakustokirik politena.

BABESLERIK NAGUSIENA: Bizkaiko Foru Aldundia

BABESLEAK: Durangoko Udala

Durangoko Turismoa

DEIA

GARA

ONDA VASCA

ANBOTO

INTERNETEKO HEDAPENA: www.euskaldenda.info

euskaldenda.blogspot.com/

www.arbaso.com

KOMUNIKAZIO ARDURADUNA: Lorea Madina

prentsa@arbaso.com

607 86 32 24